

## **Kostuen egiturak**

Enpresa baten kostuen egitura ezagutzea funtsezkoa da, bai produktu baten fabrikazioaren bideragarritasuna erabakitzeko, bai produktu edo zerbitzu baten salmenta-prezioa finkatzeko.

Kostu finkoak salmenten mende ez daudenak dira; ez dira aldatzen. Kasu honetan, lokalaren alokairua, energia-fakturak, etab. Kostu aldakorrek, ordea, ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak dira. Kostu horien adibide dira bidalketa- eta produkzio-gastuak, etab.

Gainera, kostuak eskala-ekonomiari eta zabalkunde-ekonomiari ere lotuta daude. Eskala-ekonomiaren ezaugarria da hazkundera zenbat eta handiagoa izan, kostuak lehiakorrak izatea lortzen dutela, eta horrek onurak esponentzialki gehitzea dakar. Hau da, produzitutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketa lortzen denean. Zabalkunde ekonomikoak berriz, produktu bat baino gehiago egiteko erabili daitezkeen baliabide berdinak dira.